



OFF THE RECORD

Sinopsia:

Karmele Fernandezek, praktikan dagoen kazetariak, Arantzasu Garmendia elkarrizketatu behar du. Gaur egungo euskal enpresaririk arrakastatsu eta garrantzitsuena da Garmendia anderea. Elkarrizketak aurrera egin ahala, euskal enpresaren munduan azken hamarkadan izan den iruzurrik handiena deskubrituko du kazetariak. Baina egunkarietarako berri freskoa izan zitekeena kazetariaren tormentu bilakatuko da.

Ukitu absurdoz beteriko komedia beltz honek agerian uzten du botere goseak pertsona ahulenak zanpatzeko eskrupulurik ez duela. Aldi berean, hori gertatzea ahalbidetzen duen testuingurua aurkezten du: hain gustu txarrekoa den eguneroko kazetaritza eta, baita egunero pairatu behar dugun mundu mailako engainu potolo merkantilistaren harropuzkeria ere.



FITXA LABURRA	
antzezleak	ANE ZABALA AIORA SEDANO
testua & zuzendaritza	GALDER PEREZ
iraupena	20 minutu

kontaktua: Ane 652711030

zabala.ane@gmail.com

Lantaldea:

Ane Zabala, Aiora Sedano eta Galder Perez aspalditik dira bizitzan eta antzerkian bidelagun. Hirurek elkarrekin sortutako lehen lana 'Bibote gorriak' izan zen: 2013ko Aste Nagusian estreinatu zuten jaien gaineko satira kabareteroa. Oraingoan, antzerki laburra sortzeko elkartu dira. Komedia eta absurdoarekin jolasteko gogoz datoz, baina baita egunero jasan behar ditugun ostikaden berri emateko ere.

KRISEILU SARIA 2015
EUSKARAZKO ANTZERKI LABUR ONENA
(PABELLON 6 & Bizkaiko foru aldundia)

Eguneroko ankerkeriaren erakustaldia

Prekariatatea langileen egoera naturala bilakatu bitartean, kapitalaren kudeatzaileek irabaziak biderkatzeko eta txiroen lanaldia merkatzeko trikimailuak asmatzen jarraitzen dute etengabe. 'Off the record' satira bat da, egungo pertsonen merkatuaren parodia. Egoera arrunta izan zitekeena muturrera eramango da pieza labur honetan.

Antzezleak hogei minutuz jardungo dira, komedia eta ukitu absurdoak galdu barik. Ikusleak ordu laurdenez egunero edozein bulegotan gerta daitekeen egoera baten lekuko izango dira, voyeur pasiboak, alegia. Azken finean, egunero edozein lantokitan gertatzen den bezalaxe.